

# Zurgagailua

Onintza Irureta Azkune\*

**1**90lean estatubatuar batek Ingalaterrara egindako bidaian alfonbren hautsa kentzeko makina probatu zuen. Makinaren eginkizuna honako hau zen: lurreko hautsari putz egin eta hauts hori kaxa batean sartu. Arazo bakarra zegoen; kaxan sartzen zen hautsa adina geratzen zen kanpoan. Herbert Cecil Booth asmatzaile ingelesak ikusi zuen makina hauts-jale hori eta ez zen batere harritu makinaren eraginkortasunik ezaz. Berak frogatzen ari zela eginak zituen hautsa garbitzeko tramankuluekin eta ziur zegoen hautsari putz egitea ez zela irtenbidea. Amerikarraren saiakerak ikusi eta egun batzuetara, ideia bat izan zuen Booth asmatzaileak. Jatetxe batean zegoela, felpazko aulki batekin proba harrigarria egin zuen. Ezpainak aulkiaren atzealdearen kontra jarri zituen eta arnasa sakon hartu zuen. Ia-ia ito zen eztarrian behera irentsi zuen hautsa zela eta. Hautsak une garratza pasarazi bazion ere, pozik zegoen asmatzaile ingelesa: Bazekien hautsa nola jaso. Zurgagailua asmatu egin zuen.

Berehala egin zuen diseinu propioko zurgagailua, berak patentatu eta garbiketa-zerbitzua jarri zuen. Ez zuen ez, tramankulu hark gaurkoen antz handirik, ezta gutxiagorik ere. Izugarri handia zen makina hori eta zaldi-gurdian eraman behar izaten zuten. Gasaren bidez funtzionatzen zuen makina erraldoia etxeko atarian jartzen zuten. Makinari lotuta 244 metroko tutu malgua zuen eta horixe sartzen zen leihotik etxe barrura. Asmakuntza zoragarria erakusteko asmoz, goi-klasako emakumeek tea hartzera gonbidatzen zituzten lagunak. Tea hartu bitartean zurgagailua abian jartzen zuten gonbidatuek tramankulu ikusgarriak alfonbra gaineko hautsa nola jasotzen zuten ikus zezaten.

## Asmaren erremedioa

Batzuek hautsaren beldurrik gabe tea patxadaz hartzen zuten bitartean, Ohio-n James Murray Spangler estula gainetik kendu ezinik zebilen. 59 urteko atezain honek egun osoa hautsa irensten ematen zuen, etengabe garbitzen bai-

tzituzten alfonbrak eraikin hartan. Atezain izan aurretik asmatzailea izan zen eta bere osasun-egoera negargarria ikusita, lehengo lanbideari heltzea erabaki zuen. Zurgagailua asmatu nahi zuen hautsa ezkutatu eta estula egiteari uzteko. Lehen zurgagailua egiteko erabili zituen osagaiak oso arruntak ziren: xaboi-kaxa eta ahuntzaren zurda-ekin egindako eskuila erratz-kirtenari grapatuta. Haizagailua ere jarri zion zurgagailu berriari eta hautsak jasotzeko burukoaren zorroa erabili zuen. Atezaina berak egindako tramankulu eramangarriarekin oso gustura geratu zen eta lanbidea uztea erabaki zuen. Hala ere, eraikineko pasiloetan gora eta behera ibili zen, hautsez betetako alfonbra luzeak zurgagailua probatzeko apartekoak baitziren. Lanbide berriari serio heldu zion gizon asmatikoak eta lehen zurgagailua bere lehen-gusuari saldu zion. Ez zen edonor orde, lehengusu hori: Frank G. Hoover-en amari saldu zion tramankulua. Hoover familia arnesen salmentatik bizi zen eta automobilaren





etorrerarekin, negozioak behea jo zuen. Egoera larri hori ikusita 1908an Hoover-ek Spangler asmatzaileari zurgagailuaren eskubi-deak erosi zizkion. 1948an Frank Hoover, Hoover Vacuum Cleaner Companyko zuzendaria zen eta negozioa goraka zihoakion. Arrakasta itzela izan zuen gizon horren negozioak eta horren lekuko da "hoover" hitza bera: Ingalaterran oraindik ere zurgagailuari "vacuum" deitu beharrean, askotan "hoover" esaten zaio.

#### **Gaur egungo zurgagailuak**

Zurgagailuekin egindako lehen saiakerak alde batera utzi eta gaitozen gaur egungoen ezaugarriak aipatzera. Zurgagailuek zeregin

**Aspaldidanik ezagutzen ditugu erratzak eta alfonbrei hautsak kentzeko bestelako tramankuluak. Bazterrak garbi mantendu nahi eta ezin, hautsa nonahi.**

**XX. mendera arte itxaron behar izan dugu hautsa guztiz zurgatzen duen tresna ezagutzeko.**

garrantzitsua betetzen dute gure etxeetan, zoruak alfonbraz eta moketez beteta baitaude. Gaur egun mota askotako zurgagailuak daude merkatuan, beti ere behar desberdinetara egokituak. Osagaiak nahikoa arruntak dira: makina metalezkoa eta plastikozkoa izaten da edo soilik plastikozkoa. Tramankulu horien potentzia ere oso desberdina izaten da. 150 wateko potentzia dutenak badaude eta baita 1.000 wateko tramankulu industrialak ere. Zurgatzeko potentzia hori ere, noski, kontrola daiteke gaur egun; balbula baten bitartez edo abiadura aldatzeko sistema elektronikoaren bidez.

Zurgagailu gehienek zenbait osagai kendu eta ipini egitekoak izaten dituzte. Batik bat, tutu malguak dira makinari atera diezazkiokegunak. Kendu eta ipiniko tutua denez, zurgagailuek era guztietako gainazalak garbi ditzakete. Alfonbra eta moketatik hasi eta tapizeriei eta gortinei ere hautsa kentzen diete. Tutu malguak erosotasun handia ematen du, baina erosotasun gehiago lortzearen ekoizleek ahalegin guztia egiten dute makinaren tamai-

na txikitzeko. Zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta errazago mugi daiteke zurgagailua eta edozein txokoko hautsak instant batean ateratzen ditu. Zurgagailuak hautsa jasotzen du eta, noski, denbora baten ondoren zorroa bete egiten da eta hustu egin behar da lehenbailehen. Argiaren bidez, soinuaren baten bidez edo mekanikoki adierazi egiten zaio erabiltzaileari zorroa hautsez beteta dagoela. Erraztasun horiek guztiak dituzte zurgagailu modernoek, baina gero eta sedentarioagoa den bizimodua oraindik eta erosoagoa egin nahi dute ekoizleek. Zorroa betetzen ari dela jakinarazteaz gain, kablea automatikoki biltzen du makinak eta agintea oinarekin erabili daitekeenez, ez dago zertan makurtu beharrik. Teknologia aurreratu darabilten beste zurgagailu batzuek zorroan jasotako hautsa konprimatu egiten dute eta horri esker, urtean hiru edo lau aldiz soilik hustu behar da zorroa. Ba ote dago gehiago eskatzerik?



\* ZETIAZ - Elhuyar

